

112. zk.
2002ko apirila



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Frankeo itundua 48/27



BADAIOTZ

**EUSKALASTEAMERKATALGUNEAKAMPARANOIA
BURUKETAKARGENTINAESKIATZAILEHALABEDI**



666 HALABELARRI LORTZEA HELBURU

Hogei urte beteko ditu aurten HALA BEDIk, Gasteizko irrati libreak. Urtemuga berezi honekin batera bazkide berriak lortzeko kanpaina ezagutzera eman du duela gutxi Hala Bedi. Kanpaina berezia, deigarria eta ikusgarria izan da. 6 zenbakia izan da kanpainaren gakoa, 666 bazkide lortzea helburu jarri baitute halabeditarrek.

- **KANPAINAREN DATAK:** Urtarrilaren erdialde aldera hasi ziren kanpainaren lehen zatiko kartelak eta publizitate-ziriak agertzen; bigarren zatia, berriz, otsailaren 9an ezagutzera eman zen.

- **HELBURUAK:** Halabeditarren xedea da irratiaren diru-iturri nagusia bazkideak izatea, horretarako 666 halabelarri (bazkide) egitea jarri zuten helburu gisa.

- **KANPAINAREN FORMATUAK:** Kartelak, irratiko publizitate-ziriak eta iragarkiak hedabide idatzietan. Kartelak kalean jarri zituzten, *kuñak* Hala Bedi irratiaren entzun ahal izan ziren, "remitidoak" (iragarki modukoak) *Euskaldunon Egunkaria*-n, *Gara*-n eta *El Periódico de Alava*-n agertu ziren, eta iragarkiak *Geu* aldizkarian.



112 zk. 2002ko apirila

2. ORR:

666 HALABELARRI... HALA BEDI! 20 urte gure belarrietan barna. Zorionak!

4-6. ORR.:

ZIZKA-MIZKAK. HILEKO GAIA: ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA-2002 (II)

7. ORR:

GEUgune

9. ORR:

ELKARLANEAN LEHIAKETA
MUSIKA

11. ORR.:

KONTURIK KONTU

13-16. ORR.:

BADAIOTZEKO TIRALARIAK

18-19. ORR.:

EUSKAL ASTE KULTURALA. EUSKARAREN EGUNA
APIRILAREN 8tik 13ra

21-24. ORR.:

MERKATARITZA-GUNE HANDIAK

25. ORR.:

AMPARANOIAren azkena, Gasteizen

26-27. ORR.:

BURUKETAK EUSKARAZ. IZARGI

28-29. ORR.:

GASTEIZKO ARGENTINARRAK

30-31. ORR.:

Javier Fdz. de Luko ESKIATZAILEA

32-33. ORR.:

Zeuk aukeratu!

34. ORR.:

TINK (Iñigo Sarasolaren komikia)

35. ORR:

666 HALABELARRI... HALA BEDI! 20 urte gure belarrietan barna. Zorionak!

36. ORR.:

ARABA EUSKARAZ-2002



13-16. ORR.



21-24. ORR.



18-19. ORR.



26-27. ORR.



25. ORR.



30-31. ORR.





GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Aldizkari batzordea: Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. Testuen orrazketa-zuzenketak: E.B. Maketa: Dalvez. Marrazkiak eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Ernesto Murillo 'Simonides'. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorakin eta Maite Barrera. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilaletariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



Azaleko konposaketarako argazkiak: Badaiotz eta Edorta Sanz

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Hileko gaia

BERTSOLARI ETA BERTSO EDERRAK LAUDION

Azkenean ere hasi zaigu Arabako txapelketa eta hazi egingo gara hemendik aurrera kanporaketak aurrera doazen heinean. Hasi ere modu ederrean hasi dugu, non eta Laudio (Arabarrak zirela ahazturik zeukaten) udaletxeko Mintza aretoan. Sei bertsolarik hartu zuten parte estreinaeko norgehiagoka honetan: Irati Anda Zigor Enbeita, Inaki Viñaspre, Andere Arriolabengoa, Ekaitz Elorriaga eta Lierni Altuna. Entzuleria ere ez zen gutxiago izan, beraz sei baino gehiago joan ziren. Kopurua polita izan zen, aretoa txikia izan arren beteta baitzegoen. Saioari dagokionez, publikoa berotzeko modukoa izan zen. Besteak beste Zigorren esperientzia, Viñaspreren abiadura, Iratiren freskotasuna, Lierniren ausardia, Andereren sena eta Ekaitzen irudimena izan ziren nabarmentzekoak. Guztien gaintetik geratu zen Zigorren esperientzia, berak lortu baitzuen puntu gehien. Bertsolariek bete beharreko lana honakoa izan zen: bina bertso zortziko handian ofizioka, bina bertso zortziko txikian ofizioka, lau oinak bakarka eta hitza emanda bakarka. Denetik egon arren ofiziokako saioak izan ziren arratsaldeari bizitasun handiena eman ziotenak, txikian zein handian. Bakarkako jarduna motelago joan zen orokorrean (nabari da Araban asko ligatzen dela, bakarlanean ez baitira horren finak).

Zortziko nagusian saiorik aipagarriena Iñakik eta Iratik burututakoa izan zen. Biak koadrila berekoak izaki Iratik diskoteka nahiago zuen Iñakiren "botilatzen ordez". Ofizioa Iratik hasi zuen alkoholari erreferentzia eginez:

*Beraz kanpoan edan nahi duzu
Eginez elkarriketa
Proposamena beste bar daukat
Ta egin aukeraketa
Nik diskotekan egin nahi nuke
Gaur gaueko olgeta
Lehendik ere nahikoa litro
Edan dituzu zuk eta*

Viñasprek, Iratik botarikoa aprobetxatuz, politikarekin nahastu zuen bertsoa:

*Zure ustetan litro gehiegi
Jadanik edan ditugu
Extasia eta holako denak
Hartzea ez da seguru
Baina halere mozkortzeakin
Nahiz pasa mila apuru
Gobernuai kontra egitea da*

Mozkortzearen helburu.

Iratik berehala erantzun zion borroka egiteko beste bide bat badela garbi utziz:

*Gauean festa bat egiteko
Zer nolako katramilak
Oraintxe honek gobernuaren kontra
E(g)in nahi ditu marabilak
Nik ikusi dut a zer ideiak
Darabilzkien mutilak
Gobernuaren kontra egiteko
Berari bota botilak*

Viñasprek humorez hartu zuen kontra:

*Aitzakia zen ta beraz ezin
Zara horrekin zu zora
Botilak bota, botilak bota
Baina ez goaz inora
Jakin ezazu herrin hobeto
Eta ez joan edonora
Anima zaitetz ta Rabanera
Igual ere etorriko da.*

Ofizioen ondoren, bakarkako saioa etorri zen. Hau motelxeagoa izan bazen ere, bertan ere egon zen ale ederrik, Iratiren lau oinak jarrita botatakoka kasu:

Askotan entzuna da
Jainkoa ta **diru**
Batzuentzat saria
Bestentzat **kastigu**
Baina beti eraskusten
Aritzen **zaizkigu**
Nola izan bilete
Ahulen **gatibu**



Balorazio orokor bat egin behar baldin bada, ezin da lehenengo postua lortu zuenaren bertute nagusia aipatu gabe utzi; bere erregulartasuna eta konstantzia izan ziren saioaren giltza, gauza nabarmenik egin ez zuen arren. Baina gazteek ere erakutsi zuten gauzak politikak egiteko kapaz direla, ideiak trumilka datozkiela entzefalora eta hauek bideratzeko gai direla. Hona hauen puntuaketa horren adierazgarri:

Zigor Enbeita 122,5
Iñaki Viñaspre 116
Irati Anda 114,5
Andere Arriolabengoa 101,5
Ekaitz Elorriaga 92,5
Lierni Altuna 79,5





FINAL-AURREKOAK

• **Apirilaren 13an**, 19.00etan
Aramaioko kultur etxean: Ruben Sanchez, Asier Otamendi + kanporaketetatik sailkatutako lau

• **Apirilaren 20an**, 19.00etan **Araia**ko Andra Mari Aretoan: Oihane Perea, Juan Mari Juaristi + kanporaketetatik sailkatutako lau

FINALA

Maiatzaren 11n
 19.00etan
 Gasteizko Principal Antzokian



Testua eta argazkiak: Arabako Bertso Eskola

araba bixotzian

ERABILITAKO ARROPA JASOTZEKO EDUKONTZI BERRIAK!!

AIZU, ANDREA,
 UTZIDAZU PISKA BAT
 BEGIRATZEN, MESEDEZ.

ESKERRIK ASKO

MAKINA MADARIKATU
 HONEKIN IZORRATU
 NAUTE!

APROBETXATEGIAK!!

gastelZkinak

SIMONIDES


ikusi-makusi

TORTURA



Unai Romano gasteiztarra
detentzioaren 2. egunean

Egun



BASKONIA
TXAPELDUN

ikusi-makusi

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



Arriaga. 2002/3/14

Prunus cerasifera. Ekialdetik ekarri dugun aranondo ikusgarri honen loraldiak udaberrian murgiltzen direla adierazten die hiritarrei.

Hemendik aurrera atal hau finkoa izango da gure orrietan: zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala...? **HEMEN DUZUE EUSKARAZ EGITEKO AUKERA!!!**
(Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez)

GEU AZOKA

• SALMENTAK-ALOKAIRUAK

Etxe bat salgai. 3 logela, 2 egongela (behekosu bana), sukaldea, komuna. Garaje-tailerra. 2800 metro karratuko lur-saila. Telefonoa. Lorategia. Oleta (Araba), Gasteiztik 27 km; Otxandiotik 3 km. Leku zoragarria, Urkiolako Parke Naturaletik oso gertu. Anboto eta Orisolpean. 27 milioi pta. Dei **945 263 119** edo igorri mezua daviesti@inicia.es posta elektroniko helbidera.

IMAR gurdi-denda salgai: Haurrak gazte bihurtu eta besterik ez ekartzea erabaki dugu-nez, **oso egoera onean** dagoen eta bospasei aldiz soilik erabilia izan den gurdi-denda bat saldu nahi dugu. Hauexek dira bere **ezaugarriak**: bi personentzako (haurrak izanez gero gehiago) bi gela ditu, atari handi bat, eta ondoan beste bat (aurrekoa bezain handia) gehi daiteke era errazean. Gurdiarekin batera **kutxatzar** handi eta berri bat doa. Guzti honengatik **1.200 euro** eskatzen ditugu. Informazio gehiago nahi baduzu dei ezazu tfno. honetara **945-26 41 21**

• UMEAK-ETXEKO LANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANAK...

Pertsona bat behar da urtebeteko umetxoa zaintzeko, goizez eta arratsalde, baita etxeko lanak egiteko ere. Telefonoa: 945 17 66 12 (Karmele)

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsalde, gauez, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

EGUN OSOZ • GOIZEZ • ARRATSALDEZ • GAUEZ • ASTEBURUAK

• **Mintzalaguna egitasmoari, adi!:** Euskaraz hitz egin, jende berria ezagutu, ondo pasatu nahi duzula? Deitu Elkartera (Josunez galdetu) eta aukera izango duzu! Astindu lotsa eta deitu 945222153 telefono zenbakira (zenbat eta lagun gehiago, orduan eta talde desberdinak egiteko aukera gehiago).

• Elkartea, beste hainbat ekimenen artean, **Gasteizerako Euskara Plan orokorraren** inguruan ere lanean ari da beste euskaltzale askorekin. Printzipioz, honetan lan egiten ari diren lagunek ez dute elkarerik ordezkatzeko, beraz, bilera guztiak euskaldun eta euskaltzale orori daude irekita. Interesatuta bazaude parte hartzeko aukera daukazu (deitu Elkartera bileren eguna jakiteko).

KULTUR ERROTA-02

(GEU elkartearen eskutik)

APIRILAREN 23an, asteartea,
20.30etan

PARRALEN

MATXIN

MATXIN
antzerki komikoa

**Antzerki
komikoa:**



"Ni, ni neu naiz"

Ni, ni neu naiz

GEUREKIN MENDIRA

APIRILEKO IRTEERA
ARAIA ZEGAMA

APIRILAREN 21ean

IRTEERA: goizeko 9.00etan,
Txapela tabernaren aurretik
(Prado kalean)
EGUN OSOKOA.

Informazio gehiago:
Joseba, 945200973

GEU elkartearen posta elektronikoa:
geuelkartea@grn.es
Gogoratu aldizkariarena:
geugaste@grn.es



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

• Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskalategi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

KULKI

www.kulki.org




GORETTI ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

IZARRA TABERNA

Egurren bitan, astalarenetik ostinalara

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

azkarprint
Imprenta / inprimategia

Helbide berria...

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz


Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALTASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo
teknologiak bakarrik berma dezakete
ongi egindako lana. Zerbitzu osoa,
norberaren neurrira, hurbila eta saiaturia.

Horixe duzu gure
konpromisoa.



MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN ESKUTIK...

Harry Potter saileko hirugarren liburua



ELKARLANEAN

Harry Potter, bere adiskide onenak diren Ronekin eta Hermionerekin batera, hirugarren ikasturtea hastera doa Hogwartseko sorgin eta azti-eskolan. Harry irrika bizian dago udako oporrak bukatu eta eskolara itzultzeko (eta nor ez litzateke egongo Dursleytar gogaikarriekin biziko balitz?). Baina Harry Hogwartsera iristen denean, urduritasuna eta egonezina aurkituko ditu han. Hiltzaile bihozgabe bat aske dabil, eta Azkabango espetxeko zaintzaile beldurgarriak eskola inguruan dabilta orain hiltzailearen bila...



APIRILEKO ELKARLANEAN LEHIAKETA

GALDERA:
Nola esaten da euskaraz
"como pez en el agua"?

BIDALI ERANTZUNA POSTAZ EDO E-POSTAZ, eta ZORTE ON!
Pedro Asua kalea, 2 - 3.a
01008 Gasteiz
geugaste@grn.es

MARTXOAN EZ DA IRABAZLERIK EGON... Beste batean izango da!

KANTUZALE aldizkaria: 0. zk.a kalean. Ongi etorri!

Euskal Herriko kantu eta musikaren inguruko aldizkaria

Aho bete kantuz

Taldeak, ahots berriak, musika tresnak, kan-

tugintza lantzen, sormena, musikaren historia, munduko musika, diskoetxeak, eskutitzak..., euskal kantu eta musikaren zaletu diren guztientzat. Euskal Herrian kantu eta musikarako zaletasuna aspalditik dator, jende mordo ari da musika eta kantugintzaren unibertsoan, zaletuen multzoa zabala da, profesionalena ez da txikia... Arrazoi ugari aldizkaria kaleratzeko!

Kontakturako telefonoa: **948 141 812**



• MAIXA: Sentitzen naiz (Elkar)

Maixa ta Ixiar taldea desagertu ondoren, Maixa Lizarribar bere bakarkako lehen diskoan, zeharo xume, detailez betea, moderno eta baikor bezain intimoa ageri zaigu.

"Sentitzen naiz" burutazio, sentimendu eta musika gozagarriaz beteriko arragoa duzu. Produkzioa: Triku. Martxoan kaleratua.

• URGABE: Hi bizi hadi (Elkar)

Bizkaitar erromeria-taldearen bigarren diskoa.

Kontzeptu fresko eta zuzenaren inguruan bildua, disko bizi eta baikorra duzue honakoa. Martxoan kaleratua.



• MARKOS UNTZETA: Gaua basamortuan (Gaztelupeko Hotsak)



Bere aurreneko diskoa. Bertan kantari eta gitarrajole eibartarrak 10 kantu bildu ditu. Gehientsuenak berorrek konposaturiko kantuak dira, baina badira Procol Harum taldearen bertsioa eta Jon Miranderen testu bat musikatua ere. Markos Untzeta herri anglofonoetan hezitako musikaria da. Ingalaterran igo zen lehen aldiz taula gainera. Londres eta inguruko hirietan ibili ez ezik, Bahametara ere iritsi zen bere gitarrekin. Euskal Herrira bueltatzean berriro euskaraz idazten hasi zen.

Bere kontzertuetan argi geratzen da zein den bere bidea: pop-rock estiloa, blues-folk ukituekin. Eta zeintzuek izan duten eragina berarengan: Bob Dylan, Neil Young, Bruce Springsteen, Van Morrison...



batasuna

bakea konponbidea

AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA EUSKAL HERRIARENTZAT

Xabier **taberna**

**musika ona
eta giro ezin hobea**

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

vitales



**BEIRATE
ESTUDIOA**

**MIKEL
DELIKA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

MERKURIO-KADMIOMAN
%0a

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

**CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ



**"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"**

**IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO • 01478 ARABA**
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43

iturrieta



Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTEGUNETIK
IGANDERA**

**10.00etatik aurrera
ETA BESTELA ENKARGUZ**

III. Txalaparta maratoia gogoan

Pentsamendu bakarraren aurrean gure herriak eta kultura bizirik



Txalapartaren soinua leinu batzuen soinua da, enbor batzuen, zuhaitz batzuen, mendi batzuen, lur batena, geurea; leku guztietan zegoen lur-natura hori, berarengan murgildurik geundenean.

Gaur egun dena aldatu da, teknokrata batzuk "hiriko baserri-tar" batzuen mikroikusmena aprobetxatuz, etorkizunerako makro-planak diseinatu dituzte gure etorkizun naturala hipotekatuz.

Mendiguren herrixka da Vitoria-Gasteiz hiri berria egiten ari den zapalmen horren adibide garbia.

Gaur egun Mendigurenen kezkatu bezain ikaraturik gaude Gasteizen aurrean, geroz eta handiagoa dena eta bere inguruan dagoen guztia irentsiz dihoana. Jazarpen sentsazioa handiagotuz joan da, azpiegitura handiez inguraturik baikaude.

Lehenengo, oraingo Vitoria-Altube autobaien eraikuntza izan zen, herria bi zatitan banatu zuelarik eta "venta"rekin bukatu zuen. Nork suposatu zitzakeen ekarriko zituen ezbeharrak. Herriko lau biztanle, txirindulari batzuk eta hainbat gidari hil egin dira herriko inguruan.

Ondoren, Iturizabaleta ibaia izan zen utzi gintuena. Esne gaingabetuaren koloreko ur kaltetuaren ondorioz "bertan zeuden algen usteko ustelketa naturala" izan zen bere heriotzaren zergatia. Kasualitatez, honek Etxabarri-Dibinako edariak botiletan sartzeko lantegiaren eraikuntzarekin batera suertatu zen. Arrainak ur beltzaranez eta kiratsek arrastatuak izan ziren.

Antzinan gelditu dira usoek zeruak gurutzatzen zituzten garaiak. Zoritarrez, hoxalatazko txori zaratatsu, izugarri eta nekaezinekin ordezkatuak izan dira, zeinak egunero geure buruen gainetik pasatzen diren ezer egin ezinik.

Zer esanik ez dago daukagun mendi urriari buruz: deforestazioaren, eta batez ere, militarrek orain dela urte batzuk burutu lapurretaren ondorioz ezin izan gara honetaz gozatu...

Eta gure zorigaitzak gutxi balira, etorkizuna grisa datorkigu; hormigoi kolorekoa, gure lurrak berarekin zapaldu dituztelarik zentro komertzialerako gehiegizko errepideak egiteko, eta guztiz isolatuko gaituen zirkunbala-zioa. Eibar-Gasteiz autobidea edo aireportuaren inguruan egingo diren eremu industrial "idealak" ere gure gainera eroriko dira.

Mendiguren da beste herri askorekin gertatzen ari den paradigma. Baina oraindik gauzak aldatzeko denbora daukagu, bestela Herri global baten zati ñimiño bat baino ez gara izango, lurrik eta nortasunik gabe, edo Euskal Hiria.

Aitor Mendiguren

Mendigurenen, martxoaren 5ean

"Aurrerakuntzaren" ondorioak direla eta mendigurendar batzuk erne, euren herriaren eta oro har herri txikien zapalkuntzari aurre eginez. Antolatzen dituzten ekintzen artean, honakoak: Mendiguren-Gorbeia gau-mendi ibilaldia; Gorbeia saltokiaren aurkako enkartzeladak; Gaztetxearen jardunaldietan antolatu txirringa martxa (Gaztetxea-Mendiguren), Arakatik militarrek joatearen aldeko ekin-tzak, eta azkenik, Gasteizko txalapartariekin batera egindako txalaparta maratoia.



Kordobako dantzariak euskal dantzetan murgilduta

Aldabe gizarte etxean Udal Folklore Akademiaren eskutik, otsaileko azken astean Kordobako "Luis del Rio" Dantza Eskolako ikasle eta irakasleak etorri ziren Gasteiza. Euren egonaldian Udal Folklore Akademiako ikasleekin egoteko aukera izan zuten norberaren ondare kulturala elkartrukatzeko asmoz. Hegoalde gizarte etxean eman zuten emanaldian Akademiako Dantza Taldeak ere parte hartu zuen; dantzaldiaren bukaeran, berriz, gasteiztarrek eta kordobesek Larrain dantza dantzatu zuten batera. Orain, aldiz, Gasteizko dantzariak Kordobara bidaiatuko dute egonaldian lorturiko harreman berezi hori eten ez dadin.



NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutsi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

Garagardotegia

Ostiraletik
Igandera
IREKITA
(astelehenetik
ostegunera
itxita)

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

JOSETXO taberna



"ez dago
pintxorik"

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIÁ (Araba)



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

*Confeciones
Pinedo*
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

BADAIOTZ

Tiralari arabarrak



**urrezko bi domina 480 eta
520 kiloko emakumezkoen
kategorietan**

“Herri kiroleetan emakumeak

“Azkenengo bi asteetan elkarrizketaz elkarrizketa ibili gara. Gutxien ezagutzen gaituen jendeak ere kalean gelditu egiten gaitu telebistan ikusi gaituztela esateko. Munduko txapelketan urrezko bi domina lortu eta bat-batean existitzen hasi gara! Ez da bidezkoa, non egon da hau lan gogorra egiten daramagun urte guztietan zehar?”. Pozez baina errieta egin nahian ere, hauek dira Garbiñek luzatu zizkigun lehenengo hitzak. Izan ere, ez da lan makala sokatiran aritzen diren emakumeena; kirol honen gogortasunari, ezinbestez, gizonezkoen mundu batean leku egiteko etengabeko borroka lotzen baitzaio.

Ainhoa Ferron

Argazkiak: Badaiotz eta Edorta Sanz

- ZER SENTITZEN DA URREZKO DOMINA BI LEPOTIK ZINTZILIK?

- Poz handia eta aurrera jarraitzeko bultzada. Dominek azkenengo hila-beteetan egin ahaleginek merezi izan dutela sentiarazten dizute.

- BAINA DOMINA GEHIAGO IRABAZTEKO AUKERA ZENUTEN, EZTA?

- Hori ez dago jakiterik, baina aukera asko genituen, bai.

- ORDUAN?

- Txapelketa hau bi ataletan banatuta dago. Lau egun irauten ditu; lehenengo bietan taldeka parte hartzen da eta beste bietan nazioka. Pasa den urtera arte, Euskal Herria ordezkatzeko zuen taldeak Euskadiko Selekzioaren jantzia eraman zezaketen eta Nazioarteko Federazioaren himnoa jartzen zitzaion. Aurreko urtean egon zen iskanbilaren ostean, Espainiako jantzia eta himnoa inposatu zaigunez gero, Euskal Herriko taldeok nazioarteko txapelketan parte ez hartzea erabaki dugu eta taldekako atalean besterik ez dugu egiten. Barregarriena da Estatuan bakarrik Euskadiko Sokatirako Federazioa dagoela...

- ERABAKI GOGORRA DA... HORREN AURREAN, ZEIN DA MUNDUKO BESTE TALDEEN ERREAKZIOA?

- Denetarik dago. Badaude, Irlanda-rrak kasu, ulertzen zaituztenak, baina bestalde ere, badaude irabazteko aukera guztiak ditugula jakinda gure jarrera ulertu ezin dutenak ere. Japoniarrek, esaterako, ezin zezaketen sinetsi. Dena dela, hau

“Aurreko urtean egon zen iskanbilaren ostean, Espainiako jantzia eta himnoa inposatu zaigunez gero, Euskal Herriko taldeok nazioarteko txapelketan parte ez hartzea erabaki dugu”

“Japonian sokatira federatu fitxa gehien dituen bigarren kirola da”

“Munduko txapelketara joateko hegazkinerako dirua gure poltsikoetatik irten da, beti bezala”

guretzat tristea den arren asko gozatu dugu Cork-en. Euskal taldeen artean sekulako giroa egon da eta besteekin ere harreman polita izan

dugu. Oso aberasgarria da kirol berean zein desberdin tira daitekeen ikustea eta, bestaldetik, gure maila zein ona den ikusteak asko harrotzen gaitu.

- ZAILTASUN HAUEZ GAIN, EMAKUME IZATEAK ERE EZ DITU GAUZAK ERRAZTUKO...

- Ba, ez. Existitzen ez garela ematen du. Herri kirolak zokoratuta baldin badaude, pentsa emakumeon kategorian nolakoa den egoera! Guretzat ez dago inolako laguntzarik, ez dago dirurik, ezta inolako beste bultzadarik ere. Gehienek ez dakite ETBk sokatira hala trontza mozketara saio bat ematen duenean, ordu erdi lehenago emakumeak lan bera egiten izan garela han. Gero, egia ere bada, gizonezkoen eta emakumezkoen artean oso maila-desberdintasun handia dagoela. Euskal Herriko zenbait gizonezkoen talderen maila oso-oso ona da eta neskak ez gabiltza hain fin. Baina hori trebatze kontua da.

- BERAZ, ERAKUNDEEK SOKATIRA BEZALAKO KIROLAK BAZTERTZEN DITUZTELA ESATEN ARI ZARA?

- Ah, hemen futbola edota saskibaloiaz gainera, beste kirolik egiten da, ala? Gurea, beste kirol asko bezala, oso gutxietsia dago. Munduko txapelketara joateko hegazkinerako dirua gure poltsikoetatik irten da, beti bezala. Honetan gaudenok kirol hau maite dugu baina hain laguntza gutxi ematen jarraitzen bada, urte gutxiren buruan desagertu egingo da, egin behar den ahalegina fisikoa baino askoz gehiago delako. Eta egia da

existitzen ez garela ematen du”



urtero jende berria sartzen dela, baina oso gutxi jarraitzen du.

- **HASTEKO, KIROLA GEHIAGO EZAGUTZERA EMAN BEHARKO AL LITZATEKE?**

- Lehenengo urrats bat da, izan ere, nahiz eta hemengo kirol bat den, jende askok herriko festetan eta ez seriotasun handiz egiten den zerbaitaz mintzo garela uste baitu. Baina sokatira beste kirol askoren antzerakoa da, egoera fisiko ona eskatzen du, entrenamendua... lana! Araban, soka edota beste herri kirolen batean aritzen garen guztiok elkar ezagutzen dugu; guztietan gaude, bertan dena ematen edo eserleketan ikusle. Pena da jende gehiago ez hurbiltzea, herri kirolak gure kulturaren adierazle zuzenak izanda. Gezurra ematen du Japonian sokatira federatu fitxa gehien dituen bigarren kirola izatea, hemen egiten zaion hain arreta eska-

sa ikusita.

- **TIRA, KIROL GOGORRA, BAINA EZ DUZUE ZUEK “LINEA GORDETZEKO” BEHARRIK IZANGO, EZTA?**

- Ezetz? Jakingo bazenu parte hartu nahi genuen kategorietan egoteko egin behar izan ditugunak... 480 kiloko kategorian egoteko, taldean gauden zortzi artean 20 kilo jaitsi behar izan ditugu. Egunero-egunero baskularen gainean... Cork-en geundela, pisu gutxieneko 480 kiloko lehiaketa 520koa baino beranduago egin zenez, txapelketako bigarren egunera arte jogurtak ia besterik ez genituen jan.

- **ETA, HEMENDIK AUERRERA ZER?**

- Ba, gorputzak nahi duen arte entrenatzen eta parte hartzen jarraitu, egiten duguna gustatzen zaigu-eta!

*

ZORIONAK ETA ANIMO, BADAIOZT!

IKASTAROAK ATZERRIAN

haur, gazte eta helduentzako

CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

**INGELES
FRANTSES
ALEMANA**

- Ekintza turistikoa eta ludikoekin
- Eta **CIMek** beti eskaintzen dizun bermearekin
- **Ingeleseko udalekuak Lizarran haurrentzat**

Donostia-San Sebastián
Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02

Vitoria-Gasteiz
Florida, 8A.
Tel.: 945 15 01 55



Arrasate
Avda. de Álava, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00

Uda honetan

INGALATERRA

ALEMANIA

FRANTZIA

KANADA

IRLANDA

EE.BB.





Badaiotz: Euskal Kiroletik tiraka

Sokatira herri zeltek utzitako beste aztar-netako bat da. Beraien kulturak eta bizimoduak ukitu herrialde gehienetan kirol honen aldaera desberdinak topa daitezke; bakoitzak bere ezaugarri berezia gehitzen dionez herriz herri tiratzeko teknika aldatu egiten den arren, funtsean sokak eta, indarra eta irautea agerian, elkarren artean lehiatzen diren gizon eta emakumeen taldeek hor diraute.

Zeltengandik datorkigu, beraz, sokatira. Baina, orduan, nola azal daiteke Japonian, Ekialde Urruneko kulturaren sehaskan, partaide gehien dituen bigarren kirol federatua sokatira izatea? Auskalo, norberak bere ondorioak atera ditzala...

Bitxikeriak alde batera utzita, kontua da gure herri kirolen parte garrantzitsua izanda ere, Euskal Herrian sokatirari ez diogula merezi duen arreta ematen. Ba al zenekiten, bestela, sokatira aldaera desberdin bi daudela? Ba, bai: goma gainekoa eta belar gainekoa. Gainera, sokaren mutur bietan jartzen diren taldeek zortzi lagunekoa izan behar dute eta soinean eraman ditzaketen jantziak eta oinetakoak ere araututa daude. Ziur bat baino gehiago harrituko zela sokatira herriko jaietan ezkongabeek ezkonduen kontra egiten dutena baino zerbait serioagoa dela jabetzean.

Laguntza falta

Eta horrelaxe, serio lan egiten, Gasteizko Badaiotz taldeko neskek Cork-en jokatu berri den Sokatirako VII. Munduko Txapelketako taldekako sailean urrezko bi domina eskuratu dituzte, 480 eta 520 kiloko kategorietan hain zuzen ere.

Zortzi herrialderen artean (Ingalaterra, Irlanda, Japonia, EEBB, Txina, Australia, Herbehereak -Holanda- eta Euskal Herria) arabarrek beraien maila aski ondo erakutsi zuten. Harrotasunez bete dituen garaipena izan bada ere, nazioen arteko lehiaketan Euskal Selektzioa ezin aurkeztu izanak ez ditu asebate itzultzen utzi. Ezin uler baitaiteke Estatuan existitzen den sokatira federazio bakarra Euskal Herrikoa izanda, bere burua ordezkatzeko eskubiderik ez izatea.

Eta beste koherentzia falta bat: gure tiralarien maila zenbat eta gorago igo, orduan eta erakundeen laguntza gutxiago jasotzen dute. Badaiotzek sokaren muturrean darमतान 20 urteak gure kirolaren aldeko apustuaren islada garbia dira, eskerrak hauei ez zaien Euskal Kiroletik tiraka jarraitzeko indarririk falta!



EMAIZ

Sexologia Elkarte

GURE EROTISMOA

Ziurrenik, ia gazte gehienok ikusi izan ditugu telebista-ko saio, film edota iragarki asko, sexualitatez josita daudenak.

"Taberna batean, mutilak neskari begiratzen dio. Gustatu egin zaio. Elkar agurtzen dute, atsegin du bata bestea, eta hurrengo eszenan, horrelako zerbait esaten dute: "zure etxean ala nirean?" Hurrengo eszenan bietariko baten etxean agertzen dira, elkar erantzten, etzanda eta, besterik gabe, sexu harremanak dituzte, sarketarekin, noski."

Edota gazteei zuzentzen zaizkien aldizkari askotan (Ragazza, Super Pop, Nuevo Vale, Bravo) edota irratsaioren batean, sexuari buruzko ataletan ziur horrelakoak irakurri edo entzun ditugula:

"Zer egin dezaket orgasmo gehiago izateko? Zein dira gozamen handiena ematen duten ezarrerek? Min handia sentitzen da lehen aldian? Aurrea hartzeko zer egin dezaket? Nork arduratu behar du kondoiaz? Nola izan ditzaket orgasmo bat baino gehiago? Non dago G puntua? Nola hartzen da biharamuneko pilula? Lehenengo aldian haurdun gera zaitezke? "

Baina, zer-nolako sexualitatea helarazten digute horrelako irudiek eta testuek? Gure eguneroko bizimoduan horren erraza da ligatzea? Erakartzen gaituen sexuarekin ditugun harremanetan horren seguru sentitzen gara? Eremita erotiko horren barnean koitoa da benetan plazer handiena ematen diguna? Filmetan agertzen diren orgasmo galaktikoen antzekoak sentitzen ditugu guk ere? Beste sexuko pertsonak gustatzea da "normala" zuretzat?

Ikusten duzunez, saldu nahi diguten sexualitate eredu horretan, badirudi funtsezkoa hankartean dugula, gure genitaltan. Beren funtzio nagusia guri plazerra ematea, orgasmoak sentiaraztea dela (zenbat eta gehiago hobe, eta zer axola kalitatea).

Baina sentitzeko eta gozatzeko gorputz oso-oso dugula ahazten dute, eta sentitzeko eta gozatzeko ez ezik baita desiorako, sufrimendurako edota pentsatzeko ere. Garrantzitsuena **zuk zer nahi duzun argi izatea** da, zu bakarria baitzara.

Baina hori jakiteko **gure bizitzaren ardura geuk hartu** behar dugu. Ez soilik gure bizimodu erotikoa dagokionez (norekin eta noraino joan), baita eguneroko beste hainbat arloetan ere: etxean, ikasketetan, nire lagunekin ditudan harremanetan...



Beste norbaitentzat gustuko izatea lortu nahi badugu, lehenengo **geure burua geuri gustatzea** lortu behar dugu. Eta horretarako ondo ezagutu behar dugu geure burua, nolakoak garen jakin behar dugu: gustura zaude zure gorputzarekin? Zure izaera gustatzen zaizu? Besteek zu biluzik ikusten zaituztenean lotsatu egiten zara? Zer gertatzen den ulertzen duzu? Hilekoa etortzen zaizunean zer sentitzen duzu? Nola sentitzen zara masturbatzen zarenean?

Galdera horien erantzunak bilatzeak zeure gorputzarekin edota ondoan duzunarekin zer egin nahi duzun eta zer ez jakiten, zer duzun gustukoaren konturatzen lagunduko dizu. Eta, horrela, zeure sexualitate eredu, zeure bizimodu erotikoa osatu ahal izango duzu pixkana, horrenbeste mugatzen gaituzten gizarte honetako arauetatik urrunduz.

Gogoan izan, ez egin nahi ez duzun ezer. Sexu harremanak (eta koitoa) izateko erabakia zurea eta zure ondoan dagoen pertsonarena, biona da, ez beste inorena. Ez zara "jatorragoa" izango larrua jo duzulako, edo ez zaituzte gutxiago maiteko 22 urte izan arren oraindik inorekin oheratu ez zarelako.

Zure inguruan jendeak zu nor zaren argi izatea eta zaren bezala azaltzea baloratuko du (batzuetan ez dira hori esatera ausartuko, gainerakoek zer pentsa dezaketen beldur direlako), betiere besteek pentsatzen eta erabakitzen dutena errespetatzen baduzu.

Euskara kalera, Gasteizko iparraldean

Zaramaga, Aranzabela, Aranbide eta Aranbizkarra auzoek Euskararen Eguna ospatuko dute

Euskararen Eguna ospatuko dute Gasteizko Zaramaga, Aranzabela, Aranbide eta Aranbizkarra auzoek apirilaren 13an, bost egun lehenago hasiko den Aste Kulturalari amaiera emateko. Auzo elkarteak, parrokiak, osasun zentroak, eskola eta euskaltegiak bildu dira parte-hartze anitza eta handia izango duen ekimena aurrera ateratzeko. Gasteizko iparraldean euskararen alde bost urte lanean daraman Euskharan elkartearen sorrera bultzatu zuen helburua da ekitaldiek lortu nahi dutena: euskara lau hormetatik kalera ateratzea.

Oihane Perea, Euskharaneko kideak azaldu duenez, euskara kalera atera nahi du ekimenak "auzune honetan, eta Gasteizen, euskaldun asko dagoelako". Horretaz gain, auzoan era batera ala bestera euskalgintzan aritzen direnek "konpromiso bat har zezaten nahi genuen", bakoitzak egiten duena egoitza kanpo ere ikusi eta suma dadin.

Leire Lopez de Aberasturi

BAKOITZAK BERE

Illo xume horretatik abiatu zen Aste Kulturala eta Euskararen Eguna: Osakidetzak osasungintzari buruzko hitzaldiak emango ditu, ikastetxeek eskolaz kanpoko aktibitateak erakutsi,... Euskaltegiek ere beren betiko lana egingo dute: euskara irakatsi. AEK-k euskaraz egingo du parkeko zuhaitzen errotulazioa, bertaratutakoek hitz berri batzuk ikasi ditzaten, eta IKAK oinarritzko esamoldeak biltzen dituzten kartelak jarriko ditu inguruko atarietan, jendea igogailuetako elkarrizketetako hitz apurrak euskaraz egitera animatu dadin.

Egitaraua dagoeneko auzoetako buzoi guztietan dagoen aldizkariaren bitartez zabaldu dute antolatzaileek, ahalik eta jende gehien biltzeko asmoz. Parte hartzen duen talde

bakoitzak orrialde bat izango du aldizkarian "nahi duena esan, antolatutako ekimenak azaldu, marrazkiak egiteko,...".

Ekimena aurrera ateratzeko bertaratu diren guztien elkarlanaren garrantzia azpimarratu du Oihane Perea, Euskharanek auzoan euskalgintzan aritzen diren agente guztiekin lan egiten duelako, azkenean auzokideentzako zerbitzu bat izateko helburuarekin aritzen delako.

HIRU EUSKHARAN GEHIAGO

Perea Gasteizko euskaldunen ohiturak aldatu behar direla uste du, "izan ere, jendea askotan gazteleraz ari-tzen da aurrean duena euskalduna dela ez dakielako, baina giro euskaldunean ezagutu edo harremana landuz gero, euskaraz hitz egingo dute". Helburu horrekin jaio zen Euskharan elkarte duela bost urte, "euskaldunei euskaraz bizitzeko mekanismoak eman eta euskal kultura sustatzeko". 1997tik hona auzorako zerbitzu bat izatea lortu dute, eta Oihane Perearen ustez, "Gasteizko auzo bakoitzak



bat beharko luke, hirian beste hiru bat egonez gero,...".

LIBURUTEGI EUSKALDUNAREN SORRERA

Amaia gizarte etxearen liburutegiaren inaugurazioa Aste Kulturalaren barruan egingo da, apirilaren 10ean arratsaldeko 7.00etan. Lokalak euskarazko liburuak eta kontsultarako testuak bilduko ditu, nahi duenaren eskura.

Inaugurazioaren egunerako Gasteizko udal liburutegiek emandako materialarekin sortutako lokalak 1.500 liburu izango ditu apaletan txukun-txukun jarrita. Eleberriak, olerkia, antzerkia, klasikoen itzulpenak eta haur literatura izango dira liburutegiaren ardatza. Horretaz gain, bertsolaritzak ohorezko lekua izango du, Bertsozaleen Elkartearen liburutegia ere izango delako.

Liburutegia kokatuko den gela atsegina Amaia gizarte etxearen beheko solairuan dago, eta dagoeneko eskola eta unibertsitateko lanak egin behar dituzten gazteen bilgunea da. Pentsatzekoa da hemendik aurrera jende gehiago bilduko duela, Oihane Pereak azaldu duenez, filologiako ikasleek begi onez eta interes handiz begiratzen dutelako Amaiako zerbitzu berrira.

Momentuz, bertan bildutako liburuak kontsultarako baino ezingo dira erabili, "maileguan uzteko homologazio ofizialak beharrezkoak direlako". Etorkizunerako proiektuen zerrendan dago, beraz, liburuak maileguan utzi ditzakeen liburutegi bihurtzea. Hori eta gela multimedia izatea lorzea, egungo plataforma informatikotik abiatuta.

Parte hartzen dutenak

- Iparralde gizarte etxea
- Arantzabela Ikastola
- Odon de Apraiz Ikastola
- Zaramaga Haur Eskola
- Koldo Mitxelena Institutua
- Aranbizkarra Ikastola
- Lope de Gereñu Ikastetxea
- Aranbizkarra Haur Eskola
- Samaniego Eskola
- Arana-AEK Euskaltegia
- Zazpigarren Alaba auzo elkarte (Aranbizkarra, Arantzabela eta Aranbide)
- Bizigarri, Zaramagako auzo elkarte
- Osakidetza
- Errege-Erregina Katolikoen kaleko IKAKo Euskaltegia
- Euskharan
- Zaramazulo Elkarte
- Arabako Bertsolari Elkarte
- Artzai Ona, La Esperanza eta Las Nieves parrokiak

EUSKAL ASTE KULTURALA

• Astelehena, 8:

- IPARRALDE

20.00etan Oskidetzaren hitzaldia.

"Eskola umeen osasuna"

• Asteartea, 9:

- BEÑAT ETXEPARE:

10.00etan: Eslolaurrea-pelikula

11.30etan: L.Hko 1. zikloa-pelikula

19.00-20.15: Ludoteka

• Asteazkena, 10:

- AMAIA:

19.00etan: Liburutegiaren inaugurazioa eta bertso-trama; Kirmen Uribe, tramagile-Ekaitz Goikoetxea, Iñaki Gurrutxaga, Iñigo Izagirre eta Manex Agirre, bertsolariak

- Iparralde:

20.00etan: Osakidetzaren hitzaldia.

"Zahartzaroa hiri batean"

• Osteguna, 11:

- MIKELDI ZINEMA:

10.00etan: Umeentzako pelikula, Kirikú eta Sorgina

20.00etan: Helduentzako pelikula, Jainkoaren ertzak

- IPARRALDE:

19.00-20.15: Ludoteka

• Ostirala, 12:

- IPARRALDE:

Sukalde familiarra

Euskararen Eguna.

Apirilaren 13a

10.00etan: Suziriak, txalaparta, trikitixa, perkusioa

10.30etan: Dantzak

11.00etan: Ipuin kontalaria liburutegian

11.30etan: Herri kirolak Amaian

12.30etan: Txotxongiloak Beñat Etxeparen

13.30etan: Abesbatza Beñat Etxeparen

16.30etan: Gimnasia erritmikoa Iparralden

18.00etan: Antzerkia, Beñat Etxeparen: GOAZ

antzerki taldea- GABON, ANTON KAIKU

19.00etan: Abesbatza eta jai amaiera

- HAUR JOLASAK AMAIAN

Goizean, 10.00-11.00

Arratsaldean, 16.30-17.30

- TREN TXU-TXUA EGUN OSOAN



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Gasteiz inguruan ugaltzen ari diren merkatalgune handiek arriskuan uzten dute hiriko komertzio txikien biziraupena



Urtebete baino denbora laburragoan bi merkatalgunek atek ireki dizkiete gasteiztarrei: Lakuazentro eta Gorbeia. Eta etorkizun gertu batean halako gehiago espero da. Bitartean, hiribarruko komertzio txikien jarraipena kolokan dago. Komertzio handiek txikiak jatea lortuko al dute? Momentuz behintzat, urte eta erdi batean 175 dende beren pertsianak jaitsi behar izan dituzte.

Maite Barrera • Argazkiak: Edorta Sanz

Kezkagarria da Gasteizko komertzio txikien beheranzko joera. 2000 urteko urtarrila eta 2001eko uztaila artean nabarmendu den krisiak hileko batezbeste hamar komertzio txikiren itxiera ondorioztatu du. Teknikoen esanetan, beherakada hori "kontutan hartzekoa da". Bakarrik hiri erdialdea eta Lakuabizkarrako zonalde berria izan dira gai zifra hauek ahultzeko.

Arabako Komertzio eta Industria Ganbararen ikerketen arabera, 1992 eta 1999 urteen artean Gasteizko komertzio kopuruak % 1,9 egin zuen behera. Izan ere, gehiago dira ixten diren dendak irekitzen direnak baino. Ikerketa hauek argitu dutenez, 2001 urteko hirugarren hiruhilekoan komertzio minoristen salmentek % 0,4 egin dute behera.

Eta honetan guztian badute zerikusirik merkataritza-gune handiek. Lakua eta Gorbeia artean 100 saltoki berri gehitu dituzte. Eta oraindik gehiago eskainiko ditu martxan dagoen Boulevard-ak. Azken hau, Sidenor zegoen tokian, 2003rako bukatua egotea espero da eta Gasteiz hiriaren bereizgarri izatea espero dute proiektuaren egileek. Langraizen kokatzea espero zen merkatalgune handiaren inguruan, berriz, dudak ugariak dira oraindik, mota honetako guneen saturazioa dela eta ez dela.

Honela, polaritate fenomeno bat aurreikusten da. Hau da, polo komertzial bakoitzak marketing estrategia indartsu propioak erabiliko ditu erosleak bereganatzeko. Ondorioz, orain arte hiriaren erdialdean kokatu den komertzioaren aitzindaritasuna ezabatzea lortuko dute.

Eszenatoki honen aurrean, hiri barruko komertzioek elkartzea erabaki dute, eta "GasteizOn" izenpean talde lanean jotzea.

Dendari txikiak egoeraz konturatzen dira, eta asko larrituta daude. Hala ere, iritzi desberdinak entzun daitezke.

Jose Luis Bengoetxeak Dato kalean ireki zuen bere bitxidenda 1982an. Ordudanik, minorista aktiboenetako bat bezala aurkezten da. Bere ustez, badago larritasuna, ardura eta ezinegona dendarien artean, baina hori ere ona izan daiteke. "Jendea espezializatu egingo da, hobetu egingo du, profesionalago bihurtuko da. Azkenean, dena kontsumitzaileen onerako izango da.", ziurtatzen du kontrentzitate. Bere ustez, minoristak batu egin behar dira eta bezeroak mimatu.

Landazuri kalean bere konplementu eta perfume denda txikia mantentzen duen emakumeak ere bere baliabideetan esperantza du: tratu pertsonala. Jendeak berotasun hori baloratzen duela uste du eta irribarretsu esaten du oraindik badaudela bakarrik hitz egitera joaten zaizkion bezeroak ere. "Lurrin kontuekin, eta artikulu batzuekin jendea aholkatzen uzten da", dio berak. Hala ere, konturatzen da bere salmentak ez jaistea dela orain bere xede nagusia, eta "ez litzateke horrela izan behar; salmentak igotzea izan behar litzateke helburua", aitortzen du.

Bestalde, badaude beren etorkizuna ilunago ikusten duten saltzaileak ere. Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalean zapatadenda bat duen saltzaileak argi du beherakada. Komertzio txiki askok itxiko dutela aurreikusten du, eta bere dendaren biziraupena zailtzatzen jartzen du. "Baliteke guk ere itxi behar izatea, eta uste baino arinago; agian datorren urtean bertan", esatera ere ausartzen da.

"Ibañez Moran" mihisedendan, izenaren oihartzunean esperantza jartzen dute. Bertako

arduradunaren ustez, bere jaiotzatik entzutez izateak eman die indarra merkaturarraitzeko, baina bere beldurra erakusten du "tortila denen artean banatu behar dela" aitortzean. Etorkizunean, ez daude aukera asko bere ustez: egoerari eutsi, denda saldu, edo ez du baztertzen merkatalgune handi batean kokatu behar izatea bere negozioa.

Frutategietan, harategietan eta janaridenda desberdinetan kezka ez datorkie hiri kanpoaldean kokatzen diren merkatalgune handietatik, baizik eta hipermerkatu eta supermerkatuen konpetentzia indartsutik. Izan ere, azken hamar urteetan 230 janaridendaren itxiera ondorioztatu dute horiek.

Beste alde batetik, badaude komertzio handien inperioaren gainjartzea urrun ikusten duten dendariak ere. Kezka denen gogoetan dagoen arren, orainsu jarri dituzten merkatalguneen ondorioz hitz egiteko goiz dela deritote.

Alde Zaharrean hilero ospatzen den azokak bultzada handia ematen diela aitortzen dute. Bi urte badaramatzate kanpaina horrekin, eta hasieran bezeroak inguratzea kostatu bazi-tzaien ere, bere fruituak eman dituela ziurtatzen digute.

Janaridenda, harategi eta frutadendez gain, zapatadendak eta mihisedendak dira beherakada handien izan dutenak azken hamar urteotan. Bestalde, loradendek goraka egiten dute. Komertzio eta Industria Ganbarako jakituna den Josetxo Jaiok aurreikusten duenez, kirol, brikolaje eta elektrotresna negozioentzat urte gorrak datoz.

Atariko denda ezkutua

Jakitunek egoera kritikoa aitortzen duten arren, Gasteizek mantentzen ditu bizitza osoko "delikatessen" batzuk ere bizirik, Andre Maria Zuriaren plazan aurki dezakeguna kasu.

Baina Alde Zaharreko kaleetan zehar, leku ezkutu-tenetan barneratzen bagara, oraindik gehiago txundituko gaituzten istorio zahar eta txoko bereziak aurki ditzakegu.

Jose Mediavilla Burgos aldeko Vilviestre Del Pinar herrixkan jaio zen. 1936ko gerrak bere gaztaro lasaia aztoratu zuen. Soldadu zelarik iritsi zen Gasteiz hirira eta bertan gelditu zen bizitzen; mai-tasunak toki hartaraxe lotu zuen.

Gerra bukatzean, Lorenza Ortizekin ezkondu eta elkarrekin janaridenda bat ireki zuten Barrenkalek eta Santa Maria kantoiak bat egiten duten izkinan. Atari batetik zuen sarrera. Barrenean, salmahai luze bat, eta haruntzago sukalde txiki bat. Eguraldia lagun zutenean kalerantz begira zeuden ate handiak ireki eta han bazkaltzen zuten, euren

bezeroei kasu egiteari utzi gabe; kaleak oraindik ukuilu sorta bat baino askoz gehiago ez zirenean zen hori.

Joxeren anaiak esnedenda bat ireki zuen atari bere-berean. Horrela familia-negozioa aurrera atera zuten.

Auzokideek fruitu, barazki eta barre algarak ere lor zitzaketan dendatxo haren berotasunean.

Joxe joan zitzaigun, baina gaur egunean oraindik, 60 bat urte beranduago, dendatxo harek bizirik dirau. Aspaldiko garai haiek gogotsu oroitzen dituzte inguruko bizilagunek erosketak egitera inguratzen direnean.

Salmahai zaharrak han dirau, eta atariko atea zabalik dago bezero ororentzat.

Sukalde txikia ate batekin itxia dago, eta horma asko beirazko bihurtu dira.

Hala ere, kanpoan indartzen ari diren hiper eta supermerkatu handien hoztasunak ez du harrapatu oraindik Joxeren denda, eta auzolagunek denbora askoan hala izan dadin espero dute.



LAKUA: handietan txikiena

lazio maiztaren 25ean ireki zituen bere atea Lakuako merkatalguneak Astegietako Hiper Eroskiarekin lehitzeko. Horrela, hazkunderako perspektiba gehien dituen auzo baten erdian kokatzea erabaki zuten.

Bere irekieraren egunetik, 1,4 milioi bisitariri harrera egin die zentroak sei hilabetetan. Urtebetean 3,6 milioi pertsona erakartzea espero zen hasiera batean. Baina helburu horren aurrean zentroko gerentea den Luis Garciak zalantzak ditu. Izan ere, Gorbeia merkatalgunearen irekierak ondorio nabarmenak ditu. Hala ere, itxaropena mantentzen du eta uste duenez, "hasierako boom-a pasatzen denean merkaturak segmentatuko da".

Luis Garciak oztopo gisa ikusten duena zera da, komertzio tradizionala oso sustraituta dagoela Gasteizen. Lakuako merkatal gunea defendatuz esan zuen: "Ez da komertzio txikiaren etsaia. Ez da gure asmoa haiek debalutzea, eta gure helburua ere ez da guztiaren gainetik saltzea".

GORBEIA: hasierako "boom" a bukatu al da?

Apustu indartsu honek bere asmoak bete zituen irekiera datari dagokionez. Pasa den azaroaren 21ean inauguratu zen sei eraikuntzaz osaturiko eta 230.000 metro karratuko merkatalgune handi hau.

Carrefour hipermerkatuak 10.000 metro karratu betetzen ditu, eta 104 komertzio ezberdinez osatu galeria bat ere aurkezten digute.

Inaugurazio egunean jende ospetsu ugari inguratu zen bertara, eta ongi etorri handiosa egin zitzaion zentroaren jaiotzari. "La Fura dels Baus" talde katalanak ere bere su eta kolorez betetako ikuskizuna eskaini zien hara gerturatu 2000 gonbidatuei.

Murias taldeak 12.000 milioi pezeta inbertitu ditu proiektu honetan, eta zentroak 1.500 enplegu zuzen ingururi bide eman die.

Zaramagako Boulevard-aren eskaintzari arretatsu, gogoz hartu zuen Gorbeia gerenteak, Iñaki Urbietak, zentroaren irekieraren arrakasta. Baina

Boulevard-a bainoago, badaude beste kontu batzuk Gorbeia dendaria kezkatzen dituztenak. Izan ere, salmentak espero zena baino %30 gutxiago dira.

Arrazoi ote zuen Lakuako gerente den Luis Garciak? Badirudi Gorbeia merkatalgunea ireki eta bi hilabeteetara, hasierako "boom" a pasatu eta salmentek behera egin dutela. Honen zergatiak asko direla diote bertako komertziantek desberdinek. Alde batetik, publizitate kanpaina eskasari leporatzen diote jaitziera hau. Hasiera batetik instalazioei irudi ez oso txukuna eman zitzaizela salatzen dute batzuek. Beste batzuentzat arrazoi nagusia komertzioen arteko lotura falta da.

Irtenbide bezala, komertziantek kolektibo bat sortu dute eta doako garraio zerbitzu bat jartzearen posibilitateaz hitz egin dute, beste asmo batzuen artean.

Iñaki Urbietak alarmismoa ekidin nahi du, eta esperantza mantentzen du: "Ziur gaude gauzak hobetuko direla. Superficie handi orok denbora behar du finkatzeko".

BOULEVARD-a: Gasteizko etorkizuneko sinboloa

Zaramaga auzoan kokatuko den merkatalgunea Estatu mailan iparraldeko parke komertzial handienetako bat bihurtuko da, 75.000 metro karratuko azalerarekin.

2003an irekitzea espero da, Sidenor-eko altzairutegi zaharra botata, orubearen garbiketa eta deskontaminazioa egin ondoren. Urtean hamabi milioi pertsona erakartzea espero da.

30.000 milioi pezeta inbertitu dira proiektu honetan, Gasteizko hiriaren erakusgarri bihurtzea espero delarik. Proiektuaren egileek Bilboko Guggenheim eta Donostiako Kursaal-arekin partatu dute; Gasteiz hiria kanpoan ezagut dezaten bideratuko duen sinbolo bihurtu nahi dute eraikuntza berezi hau.

Eduardo Leira arkitektoak eman dio forma ideia honi. Eraikuntzak diseinu berezia izango du, asimetrietan oinarrituz.

Oposizioa

Proiektu hauek protesta oihuak ere izan dituzte atzetik.

Boulevard-aren ezarpenarako aurrera eraman beharreko urbanizazio lanek espero zena baino 354 milioi pezeta gehiagoko inbertsioa eskatzen dute. Hori dela eta, Batasuna-k, EAJk eta EAK beren kexuak aurkeztu dituzte.

Patxi Lazkoz bozeramaile sozialistak honakoa adierazi zuen: "Ogasun zinegotziak gai hau berandu azaldu digu, eta komisioan erabaki zenetik at. Gainera, honek hiriaren arteria printzipaletako batean esku sartu behar izatea suposatzen du, tra-

fiko, mugikortasun eta komunikazioari dagokionez". Alderdi politiko guztiak bat zetozen ez zutela proiektua ezagutzen eta gai hau ez dela seriotasunez landu.

Beste alde batetik, Gorbeia merkatalgunera ere iritsi dira protesta batzuk. Kasu honetan, lan baldintzen ingurukoak izan dira. Batasuna zentroko lan baldintzez kezkatu da eta Administrazio Lokaleko Departamentu Foralari informazio gehiago eskatu diote.

Batasunaren aburuz, instalakuntzen prestakuntzan lan gogorrek egitera behartu dituzte langile asko kontratuen bidez. Horrez gain, kontratuen denbora mailaren inguruko gaia argitzeko eskatu du.

Zer da "GasteizOn"?

GasteizOn Zentroa hiriguneko merkataritza-gunea sustatzeko helburuarekin jaio da, hiriaren inguruan sortu diren merkatalgune ugarien aurrean hiritarren erreferentziatzeko merkataritza-gune bihurtzeko, alegia.

*Helburua

GasteizOn Zentroak talde-jarduketa koherentea ezarri nahi du, eraginkor-ki eta dinamikoki garatzeko guneko merkataritza eta marketing-estrategia bat. Honela, hiritarrak ere gehiago erakarri, atxikitako enpresa eta merkatarien lehiakortasuna eta profesionaltasuna handitu, arriskuak antze-man eta sortzen diren aukerak aprobetxatzea espero da.

Horrela sortu zen GasteizOn.

"Hirigune periferikoko desertizazioa" deritzan arazoa Europa eta Estatu Batuetako toki askotan ematen da. Merkatalgune handiek hiri erdialdeak hustutzen dituzte.

Roberto Martinez de Gereñuk ongi dioten bezala, Merkatalgune handi bihurtu nahi dute Gasteiz Hirigunea bera. Saltokien kokapen estrategikoa bideratu eta jendea erakarri nahi dute zonalde horretara.

*Estrategia

- 1.- Hiriko merkataritza-egitura kontsumitzaileen beharretara egokitzea, bai taldeka bai bakarka.
- 2.- Merkataritza-gunea etengabe dinamizatzea eta sustatzea.
- 3.- Kontsumitzaileei baterako zerbitzuak eskaintzeko ahaleginak egitea, baterako lehiatze tresnen bidez.

*GasteizOn-en jaiotza

1997-98an ikerketa lan bat aurrera eramane zen Gasteizko hiri-erdialdeari buruz. Ikerlan hori espezialista katalan batek interpretatu zuen. Ondorio gisa, hiriguneko merkataritza-guneko gerente bat jartzea proposatu zuen.

Lau erakundek proiektu honen kudeaketan parte hartzeko hitzarmen bat sinatu zuten: Eusko Jaurlaritza, Gasteizko Udala, Merkatal eta industri Ganbara, eta Arabako Merkataritza eta Zerbitzuen Federakundea.

*GasteizOn martxan

2001eko uztailaren 2an izendatu zuten Roberto Martinez de Gereñu hiriguneko merkataritza-guneko gerente.

Bere egitekoetan hasteko, lehenik azterketa lan bat beharrezko zuen. Beraz, inplikaturako alde guztiekin harremanetan jarri, eta kexa, eskaera eta iritzi ezberdinak kontrastatu behar.

Proiektu berri hauek Gasteizko komertzioaren gaztaroan aldaketak ekarriko dituztela argi dago.

Merkatalgune handiek, alde batetik, konpetentzia puntu batzuetara polarizatuko dute. Bestaldetik, polarizazio horrek hiria basamortu bilaka ez dezan borrokatuko da GasteizOn.

Goiz da oraindik mugimendu hauen guztien fruituen kolorea sumatzeko, baina aldaketa garrantzitsu bat etorriko dela argi dago. Datorrena datorrela, prest egon beharko.

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi



**PITILIN
GORRI**

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN



“Guztiok bat egiten badugu haizerauntsia izan gaitezke”

Amparo Sanchezek hirugarren diskoa kaleratu berri du, Amparanoia taldea abian jarri zuenetik. “Somos Viento” du izena eta Gasteizko Azkena-n aurkeztu zuen iragan martxoaren 8an. Musika munduan txikitatik murgilduta egon den granadata-rra da Amparo. Hamasei urterekin Correcaminos bere lehen taldea sortu zuen: blues, jazz, rock & roll..., musika estilo guztiak nahasten zituen. Orduz geroztik, beste hiru taldetan aritu da: Fábrica Magnética, The Gang eta Amparanos del blues taldeetan, hain zuzen ere.

Amparanoiarekin hiru disko kaleratu ditu eta azken hau, orain artekoak ez bezala, Hispavox multinazionalarekin. Amparorekin mintzatu ginen Gasteiza etorri zenean.

Eduarne Begiristain - Argazkiak: Edorta Sanz

- “SOMOS VIENTO” KALERATZEN DUZUN HIRUGARREN LANA DA, NOLA DEFINITUKO ZENUKE DISKOA?

Estilo berritzaileen nahasketa bat da, musika estilo desberdinen fusioa. Disko honekin itxaropenez betetako mezua igorri nahi dut, alegia, guztiok bat egiten badugu haizea bainoago haizerauntsia izan gaitezkeela.

- AURREKO BI LANEKIN ALDERATUTA, ZEIN DESBERDINTASUN DITU?

Orain arte egindakoaren garapena da, egindako lanaren eboluzioa. Aurreneko diskoan tabernetan abesten genituen kanta jasotzen ziren, bigarrenean musikari desberdinekin izandako topaketa islatzen zen, eta hirugarren honetan hobeto lantzeko beta izan dugu, letrak zaintzeko, produkzio lana hobetzeko... Lana oso zainduta dago, garapena ikusten da.

- JOKO BAT EGINGO DUGU. HITZ BATZUK BOTAKO DIZKIZUT ETA BURURA DATORKIZUNA ESATEN DIGUZU, ADOS?

Bai.

- MARTXOAK 8:

Munduko emakume eta gizon guztiek emakumearen egungo egoeraz hausnarketa egin behar duten eguna. Kontuan hartu behar dugu munduko gudez eta gosez kaltetutako biztanleen %80 emakumeak eta haurrak direla. Emakumearen errespetua lortzeko lan egin behar dugu.

- HEGOALDEA:

Nire lurraldea da. Atsedan hartzeko, deskonektatzeko atsegina

dudan lekua. Magia izugarria du hegoaldeak.

- IPARRALDEA:

Sorpresa handia. Duela gutxi arte ez nituen Euskal Herria, Katalunia, Galiza ezagutzen, eta benetako aurkikuntza izan da niretzat. Kontzertu gehienak iparraldean ematen ditugu, asko gustatzen zait eta izugarri disfrutatzen dut hemen.

- GORPUTZA:

Fisiko, tenporala. Eraman behar dugun zerbait da. Zaindu behar dugu, gozamina eman behar diogu, baita poztasuna ere.

- MUSIKA:

Norberaren bizitzaren soinu banda. Bizi duen garaia soinu banda pertsonala da.

- KOMUNIKAZIOA:

Asko hitz egiten da komunikazioaz, teknologia berriez... Baina komunikazioa errespetua da, entzuten jakitea, albokoa ezagutzen saiatzea. Hori da benetako komunikazioa. Betidanik gurekin egon den zati bat da eta, aldi berean, falta dugun zerbait.

- GLOBALIZAZIOA:

Asmatutako sistema ekonomikoa, non kapitalistek dena kontrolatzen duten. Baina zerbait globalizatzea ahaztu dute, hots, giza-eskubideak.

- HERRIAK:

Gure historiaren parte dira eta ezin ditugu ahaztu. Aurrerapenez baliatu behar dugu baina iragana ahaztu gabe. Zuek oso adibide garbia duzue euskararekin, hizkuntza horrek pasa duena asko izan da, baina egun bizirik egotea lortu duzue.



BIRA

22-MADRIL

MARTXOA:

23-VALENTZIA

8-GASTEIZ

APIRILA:

9-IRUÑEA

4-GRANADA

16-BASAURI

5-CORDOBA

17-OIARTZUN

6-SEVILLA

21-MADRIL

13-BARTZELONA

$$6+7 \times 10-5=$$

BURUKETAK EUSKARAZ

“Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute”. Helburu horrekin argitaratu ditu Izargi izeneko proiektuak Lehen Hezkuntzari zuzendutako euskarazko buruketen koadernoak. Hemendik aurrera batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak euskaraz egiteko aukera paregabea izango dute haurrek.

Eduarne Begiristain

Izargi ekimenaren eskutik kaleratu ziren martxoan Lehen Hezkuntzako haurrentzako euskarazko buruketa koadernoak. Proiektu berria da, sekula ez baita euskaraz horrelako argitalpenik atera eta Gasteiz hautatu dute aurreneko aurkezpena egiteko. Geu aldikaria ekimenaren sortzailetako batekin mintzatu zen proiektu berri honen nondik norakoak jakiteko, baina talde sustatzaileko partaideak nortzuk diren momentuz ez ezagutaraztea nahiago zutela esan zigun.

Buruketak egiteko koadernoen helburua euskararen berreskurapen prozesuan urrats berri bat ematea dela azaldu zigun Izargiko kideak. B eta D eredueta hezkuntza materiala aztertu eta euskaraz dauden “gabeziak” betetzeko asmoz otu zitzairen liburuxkak ateratzea. Momentuz matematikako koadernoak kaleratu dituzte, baina haien asmoa da beste arlo batzuk ere jorratzea. Kaleratu berri diren koadernoek 40 orrialde inguru dituzte eta guztiak batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egiteko buruketaz beteta daude. Gainera, txanpon berriari, alegia euroari, egokitutako problemak dira. Hiru koardeno dira: Lehen eta Bigarren zikloetarako, Bigarrenerako bakarrik, eta Bigarren eta Hirugarren zikloetarako.

Ekimenaren kideetako batek azaltzen digunez, koadernoak “irizpide pedagogiko batetik eginak daude” eta “pentsatzeko eta hausnartzeko baliogarriak” dira. Ikasleek buruketak egiterakoan estrategia batzuk gara-

tu behar dituzte, eta modu horretan ikaslea pentsatzera behartzen da. Era berean, haurrek matematika arloan izan ohi dituzten arazoak eta trabak kontuan hartu direla azpimarratu digu proiektuko kideak.



EKIMEN GEHIAGO HEMENDIK AITZINA

Martxoan eman pausoa, alegia materiala kalera ateratzearena, hemendik aurrera emango dituzten bestelako urratsen aurrenekoa baino ez da izan. Bigarrena maiatzean izango da, orduan hasiko baitira koardenoen aurkezpen gehiago egiten, oro har jendearen, baina batik bat irakasle eta gurasoen arreta bereganatu ahal izateko. Izan ere, koardenoak irakasleek euren klaseetan erabiltzeko oso aproposak izateaz gainera, haurrek uda partean eta kurtso hasieran praktikatzeko ere izugarri gomendagarriak dira.

Haatik, arestian aipatu legez, matematika ariketa hauek ez dira izango Izargik argitaratuko dituen koaderno bakarrik. Material gehiago prestatzen daudela jakinarazi digu ekimeneko bultzatzaileak, eta aurrerantzean bestelako ikasgaiak lantzeko ariketa praktikoak ere eskura izango direla esan. Dena dela, momentuz jendearen artean duen harrera neurtu nahi dute. "Oso material ona dela uste dugu, baina horrek ez du esan nahi ongi funtzionatu behar duenik", aitortu digu. "Pixkanaka-pixkanaka gauzak aurkezten joan nahi dugu eta aurkeztu ahala ikusiko dugu zein harrera duen. Horrek bide emango digu bestelako ekimenak ere martxan jartzeko", diosku.

KOADERNOAK "IRIZPIDE PEDAGOGIKO BATETIK EGINAK DAUDE" ETA "PENTSATZEKO ETA HAUSNARTZEKO BALIOGARRIAK" DIRA

EUSKARAREN BERRESKURAPENAREN ALDEKO EKARPEN BAT

MOMENTUZ GASTEIZEN BAKARRIK

Ez da gasteiztarrei soilik zuzenduta dagoen materiala, ezta guxtiago ere. Euskal Herri guztira zabaltzeko asmoa dute, eta edozein herritako ikastola batek koadernoak interesgarritzat joko balitu eta euren klaseetarako erabili nahi izango balituzte, ez litzateke inolako problemarik egongo bertara bidaltzeko. Momentuz, hala ere, Gasteizen finkatu dute ezagutarazteko gunea, gehienbat ideiaren talde bultzatzailea bertakoa delako. Bi mila ale atera dituzte koaderno bakoitzeko, eta ekimenak

arrakasta lortzen badu, askoz gehiago aterako lituzkete, noski. Ekimenaren ordezkariak argi utzi digu proiektu honekin ez dutela inolako "irabazizko helbururik" bilatzen, "ez da negozio bat, ez baitugu inolako etekinik espero", argitu digu. Euskararen berreskurapenaren aldeko ekarpen bat baino ez da, eta hori asko da, dudarik gabe. Hemendik aurrera sorpresa bat baino gehiago egongo direla aurreratu digu ordezkariak, eta ez bakarrik hezkuntza arloan...

adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

“Ikasketak dituen herriari ezin zaio iruzur egin”

40ko hamarkadan Argentina nekazaritzaz bizi zen nagusiki, eta orduan hasi zen hirirako exodoa. Baina garapen industrialak ez zen behar bezalakoa izan eta ordutik hona, nekazaritzari uko egindakoak hiriaren ateetan pilatzen joan dira, inolako aukerarik gabe. Txapazko eta kar-toizko txaboletan bizitzen, hezkuntzarik eta osasun zerbitzurik gabe... eta hori guztia boterean korrupzioa eguneko ogia izaki. Urte askotan estatuak bere diru sarrerek baino korpuru handiagoa xahutu ditu. Diferentzia kanpotik ordaindu diote urtetan.

Argentinan nagusi izan den neoliberalismoaren ondorioz, krisi ekonomiko larria izan da azken urtetan. Hori dela eta, argentinarrak kalera irten dira erantzukizun politikoak eskatzuz.

Argentinak egun pairatzen duen egoeraren ardatz nagusiak, besteak beste, hauek lirateke: bate-tik, kanpo zorra izugarri biderkatu da gobernu neoliberalen agin-pean; bestetik, Argentinak Hego Amerikako herrialde gehienek bezala ez dauka nahikoa teknologiarik nazioarteko merkatuan lehiatzeko eta azkenik, pesoa eta dolarraren arteko paritate finkoa egon da. Gauzak horrela, egun Argentinako presidente Eduardo Duhaldek bere agintaldia amaitu aurretik -2003.ko abenduan- Argentina putzutik ateratzeko promesa egin du...



Ami Quiroga

Josune Velez de Mendizabal
Edurne Begiristain

Argazkiak: Edorta Sanz

Batzuk besteak baino baikorragoak, baina hala eta guztiz ere euren jaioterriaren etorkizuna beltza ikusiz, Gasteizen badira Argentinako sustaietatik alde egin eta gure hiria bizileku hautatu dutenak. Bizilagunen artean, geuk Korreria (Hedegile) kalera jo dugu bertan tangoaren doinu sentiberaz hainbat ostegunetan euren txoko partikularra sortzen duten argentinarrekin mintzatzeko.

Musikak ekar dezakeen oroitzapenekin batera La Yerra jatetxera gerturatzeko dena Argentinan lantzen den janaz goza daiteke; modu bereziaz ebakia den behi haragia eta panqueque gozoa, besteak beste, dasta daitezke bertan, betiere arreta eta tentu handiko prestakuntzaz, hatzak miazkatzearen errudunak Ami eta Stella dira, bertako sukaldari argentinarrak.

Stella Maris Froiz Perrino 1949ean jaio zen Villa Angelan eta bere jaioterrian egon zen azkenengo aldia iazko urrian izan zen. Ami Quiroga, 1939. urtean Buenos Airesen jaioa, orain dela hiru urte egon zen azkenengoz Argentinan; biak sukaldariak baina bi emakume hauen istorioak oso bestelakoak dira, abiapuntua, berriz, iguala: Argentina beraien sorlekutik alde egin izana.

HERRIMINA

Stella eta Ami bi urte daramatzate Gasteizen, nahiz eta Argentinatik orain dela 18 eta 22 urte, hurrenez hurren, joan ziren. Amik dio bera “jainkoak hautatua izan zela” bere zorteari erreferentzia eginez. “Bertan oso ezaguna zen familia batekin joan ginen Madrilera, Juan Diego Botoren amarekin hain zuzen ere. 1978. urtean izan zen hori, Juanek bi urte zituen eta nik zaindu nituen bai bera eta bai bere anaia, nik hazten ikusi ditut biak.” Ami ere Valentzian egon zen sukaldari lanean eta ondoren jatetxe propioa ere izan zuen; azkenik, Gasteizen bukatu du non oso pozik aurkitzen den. Stellak, aldiz, 22 urte eman ditu Madrilan eta berak aipatzen duenez “Argentinatik alde egi-tera bultzatu ninduen arrazoa beste modu batekoa izan zen, bertan ez bainuen irabazten behar beste diru egin behar nuena egiteko..., semea aurkitze-ko hain zuzen ere..., eta azkenik, iaz topatu nuen..., bertan lan on bat neukan baina diru gehiago behar nuen semea berreskuratzeko..., dirua behar nuen ahoak irekitzeko (informazioa lortzeko), ...azkenean, topatu dut... berak hogeita hamar urte dituela...”.

Stellak eta Amik Gasteiz oso gustuko dute eta azkenengo honek nor bere saltsan sentitzen dela onartzen du, “Madril oso hiri handia da, mugimendu gehiegi-ekin; Gasteiz, oster, baketsua da, oso

ondo zaindua dagoena, oso garbia...”, non Stellak kalean asteburuetan txisa egiten duen jendearen arazoa ere gehitzen dion, “komunak hemen ondoan daudela ere...” (Hedegile kaletik Zapatari kalera jaisten den kantoia aipatuz).

Jendearen harrera oso ona izan dela ere aipatzen dute argentinar hauek, eta gure hiriari buruz aritzean Stellak bere semea Gasteiza etor dadin borrokatzen duela dio, “hemengo jendea, gastronomia, musika, hiria bera dut gustuko..., gainera, egonkortasun ekonomikoa dago, han sekula egongo ez dena... Nik ez nuen inoiz sinetsi pesoa dolarren pare egon zitekeenik”

Amik berriz, bere senideak faltan botatzen ditu eta Gasteizen jubilatuta eta denboratxo bat pasa ostean hara bueltatzeko ideia dauka. “Hemengo jendea faltan botako dut, zeren eta oso ondo tratatu baikaituzte, baina familiari dagokionez asko galtzen ari naiz, ilobak hazten..., eta behin lana uzten dudala zer egingo dut hemen nire familia gabe?...”.

HAIN URRUN, HAIN GERTU

Argentina egun pairatzen ari den egoerari buruz galdetzean Stellak bere hitzetan gaitzidura keina erakusten du, “oso gaizki dago, nik egoera hau herriak bizi behar zuela antzematen nuen orain dela 20 urte ere, egun eta orain dela 20 urte zenaren arteko desberdintasun bakarra da orain jendea kalera irtetzen dela oihukatzeraz; lehen, aldiz, jendea isiltzen zen”.

Bestetik, Amik dio bertako biztanleek gertatzen ari denari buruz jaso dezaketen informazioa oso urria dela eta honaino heltzen direla han jakin dezaketen baino gauza gehiagoren berri. “Han mafiak daude, jendea hiltzen dute ogi pusketa batengatik..., hango komunikabideetan hildako baten berri ez dute ematen eta zu enteratuko zara soilik zure gertuko norbait bada, senidea edo laguna bada, bestela ezer gertatuko ez bailitzan...”. Amik dio bere senideek berarekin telefonoz hitz egiten dutenean ez diotela ezer konstatzen ez larritzearen, “azken finean hemendik ezin baitut ezer egin sufritzea ez bada”.

BELTZ-BELTZA

Delinkuentzia, ustelkeria, heriotzak..., horrela laburbiltzen dute argentinar emakume hauek beren jaioterriko egoera latza. Etorkizuna..., “beltza, beltza, oso beltza, ez dugu uste hoberruntz joko duenik, ez baitago herria maite duen inor, eta gainera interesik ez dago gazteek ikasketak izan ditzaten, herri landu bati ez zaio hala nola iruzur egiten eta...”.

Horretaz gain, Stellak dio jendeak herritik alde egin nahi izan duenean pasaporteak ukatu egin zaiela, paperik ez dagoen aitzakiaz.

Amiren iritziz beraiek biak Argentinatik irten diren beste hainbat pertsonak bezala zortea izan dute: “Bertako jendeak pentsatzen du irtenbiderik ez dagoela eta bertan dagoena onena dela, ...herri nekatur da, etsita..., mentalitate aldaketa behar duen herria”.

Iritziz iritziz

Eta etorkizunari buruz ere galdetu diegu lapikoen artean ez baina kirolan gogor ere dabilzan argentinarrei, izan ere, Gasteizko saskibaloiak eta futbolak Argentinatik etorritako mutil hauei asko zor baitiete.

• HERMES ALDO DESIO

Alaveseko jokalaria

Corral de Busto, Argentina

“Argentinako etorkizunari dagokiolarik, ni betidanik baikorra izan naiz, aurrera aterako gara..., jende eraginkorra aurkitu bezain laster aurrera egingo dugu, mentalitate arazoa besterik ez da, baina orain jendeak alde egiten du lurraldetik. Ni egon nintzen azkenengo aldia abenduaren 21ean izan zen eta orduan gori-gorian zegoen setio egoera delakoa..., dena den, lurralde bakoitzak mila aurpegi ditu, eta guk orain gutxira arte Afganistan non zegoen ez genekien, orain, aitzitik, gertatutakoa eta gero ezagutu dugu bertako errealitatea eta gauza bera pasatu da Argentinaren kasuarekin; hala eta guztiz ere, gauza potoloenak Buenos Airesen gertatzen ari dira eta ni 12.000 biztanle dituen herri txiki batekoa naiz, hortaz, ebasketak eta gainontzeko guztiaren berri nahikotxo beranduago heltzen da herrira”.



• FABRICCIO OBERTO

Tau-Baskoniako jokalaria

Las Varillas, Argentina

“Ekonomiaren egoera aztertuz gero lurraldeak bizi duen egoera latza dela argi dago, momentuz etorkizunik ez da ikusten, aldaketa ugari behar dira horretarako..., borobil bat bezalakoa da; egoera honetan, beraz, etortzen den edozeinek ez du ezer hobetuko... Bertan egon nintzen azken aldia abuztuan izan zen baina hiru egunero edo gurasoekin hitz egiten dut, ez da ezer argi ikusten, egin ahal den bakarra bizirauten saiatzea da”.



• PABLO BRANDÁM

Alaveseko jokalaria argentinarra

“Oso txarto ikusten dut bertan bizitzen ari den egoera, pena sentitzen dut bertako senide eta adiskideengatik, Argentinan utzitako maite ditudan pertsonengatik..., baina hau hoberruntz joango deneko itxaropena daukat, fedea, itxaron besterik ez dugu egin behar, ...Argentinak aurrera egiteko baliabideak dituen lurraldea da, lurralde “potentea” baita, baina aurretik izan diren buruek baliabide horiek ez dute aprobetxatzen jakin...”.



“Txapelketara guztiaren bila joan nintzen, arriskatu nuen, baita lortu ere”

Lau urte besterik ez ditu Javierrek behar izan Espainiako eski alpinoko txapelketetan hobereenen artean ezartzeko. Gasteiztarak 98. urtean aulkian utzi zuen istripua baino lehen kirola ez zuela egiten lasai asko aipatzen du, ordutik, berriz, bederatzi domina eskuratu ditu, ezer gutxil; aurten otsailaren 4 eta 8a bitartean La Molinan izandako txapelketatik metal guztiak ekarri ditu etxera, kolore guztietako dominak, merituen adierazle: urrea, zilarra eta brontzea. Gehiago eska daiteke?!



Josune Velez de Mendizabal

Argazkiak Javier Fdz. de Luko

Javier Fernandez de Lukok ez zuen uste hainbeste sari ekarriko zituela bueltan, izan ere, Eski Alpinoko Txapelketan partehartzaileen artean oso indartsu jotzen zuten batzuk zeuden, “batez ere katalanak, hauek ia egunero entrenatzen dute eta guk, aldiz, asteburuetan besterik ez dugu egiten, gainera, aurtengo entrenamenduetan ez dugu eguraldia lagun izan”. Hogeita hamabi urteko gazte honek ez zuen, beraz, erraz izan, “txapelketako lehen bi egunetan nahiko gaizki aritu izanak sikologikoki eragin ninduen”, baina Javierrek ez zuen animorik galdu: “txapelketara guztiaren bila joan nintzen, arriskatu nuen, baita lortu ere”.

Oro har, Euskadiko Taldean markak hautsita pozik eta gogotsu daude, izan ere, Edurne Unamunok urre bi irabazi baitzituen Jaitsiera eta Gigante modalitateetan, Javier Imanezek zilarra (Jaitsiera / Slalom / Konbinatuan) eta urrea Gigante delakoan, Mixel Blancok urrea eskuratu zuen Jaitsieran, eta Ramon Fernandezek brontzea ekarri, Jaitsiera, Gigante, Slalom eta Konbinatu frogetan.

Gauzak horrela, lanean jarraitzen dute eta dagoeneko hurrengo Txapelketan ditu Javierrek begiak jarrita, Aste Santuan Frantzian izango denean hain zuzen ere, bertan 15-20 aulki egongo dira eta gutxi entrenatu duela aipatzen duen arren, seguru Javier gogor arituko dela marka pertsonalak gainditzeko asmoz.

Ez pentsa gero, eski garaia amaitzen denean kirola egiteari uzten dionik, kirolari amorratua baitugu gasteiztarra, hortaz, eskia atletismoarengatik ordezkatzeko du; bi urte daramatza kirol hau parktikan jartzen eta jadanik Behobia-Donostia eta Santurtzi-Bilbao bezalako lasterketetan egon da.





TXAPELKETA MUNDIALAREN NORGEHIAGOKA: NOIZKO EUSKALDUNAK?

Javierri kirol munduan exisititzen diren ezberdintasunei nahiz diskriminazioari buruz galdetzean, hots, begi-bistan da, besterik ez balego bezala, futbolak komunikabideen arreta gehiena bereganatzen duela edota emakume nahiz pertsona gaigabezia-fisikodunen markak behar besteko oihartzuna ez dela miresten prentsan, telebistan eta irratian, honako hau erantzuten du: "jendea harrituta gelditzen da telebistaren aurrean eskiatzen agertzen garenean...; bestetik, nire bereziki honaino heldu izana ez zait esfortzu handirik iruditzen; bai, oster, gustatuko litzaidakeela Espainiako 'Elbarrituen' Federazioak euskaldunoi gehiago laguntzea eta Munduko Txapelketan aurkezteko aukera ematea". Eskiatzaile honen iritziz, laguntza, motibazioa eta katalanek dituzten beste aukera beharko litzukete izan euskaldunek ere, "euskaldunok oso marka onak egiten ditugu, nahiz eta katalanak betidanik kirole-tan nabarmendu diren..., baina gai honi buruz ez dugu sekulan luze hitz egin..., behin brometan ari ginela katalan batek esan zigun Munduko Txapelketara joan ahal izateko euren federazioan apuntatu beharko genukeela..."

EGUNEROKOTASUNA

Atletismo garaia hasten denean Javier errepidera irtetzen da entrenatzera, eta txirrindulariak ez bezala berak aipatzen duenez kotxeek guztiz errespetatzen dute, hau da, albotik pasatzean tarteaz utziz edota bozina erabili gabe.

Bestetik, elkarbizitzan guztiok eskatzen dugun errespetuari dagokionez, berriz, hirietan pertsona gaigabezia-fisikodunentzat badira hainbat oztopo arkitektoniko hainbatetan sahiesten ez direnak;

Javierri ez zaio kostatzen bere aulkiarekin espaloia saltatzea, bera kirolaria baita, baina onartzen du bakoitza mundu bat den heinean hainbat gauza egokitu beharko liratekeela, hala nola, tabernetako komunak... "Ni ondo sentitzen naiz Gasteiz bezalako hiri batean, baina ezagutzen dut nik nor pertsona gaigabezia-fisikodunen baldintzak kontuan izan gabe zerbait eraikitzen ari direnean lan horiek salatzen dituen, gauzak behar bezala, egokituak, egin ditzaten..."

IBILBIDEA:

- **1998. urtean** Espainiako Eski Alpinoko XII. Txapelketan (Baqueira-Beret): Brontzezko domina Slalom-ean

- **1999. urtean** Espainiako Eski Alpinoko XIII. Txapelketan (Soldeu-El Tarter-Andorra): Brontzea Slalom-ean, Zilarra Supergigante-an, Urrea Konbinatuan

- **2.000. urtean** ez zen txapelketarik egon

- **2.001. urtean** Espainiako Eski Alpinoko XV. Txapelketan (Sierra Nevada): Brontzea Gigante-an, Urrea Slalom-ean, Urrea Konbinatuan

- **2.002. urtean** Espainiako Eski Alpinoko XVI. Txapelketan (La Molina-Gerona): Brontzea Gigante-an, Zilarra Konbinatuan, Urrea Slalom-ean

ADI EUSKAL KULTUR
ASTEA ETA EUSKARAREN
EGUNARI!!!
(18-19. ORRIALDEAK)

IGARTZA SARIA
V. LITERATUR
SORKUNTZAKO BEKA
IDAZLE BERRIENTZAT
EPEA: UZTAILAREN 1ERA ARTE
INFORMAZIOA: BEASAINGO
UDALA. EUSKARA ZERBITZUA

PARRAL TABERNA.
APIRILEKO AGENDA

• 2AN, 9AN, 16AN ETA 30EAN:
ADI EGON !!

• 23AN: KULTUR
ERROTA-02
(GEU ELKARTEAREN ESKUTIK):
MATXIN-ANTZERKI KOMIKOA:
NI, NI NEU NAIZ
ORDUA: 20.30ETAN

FANTASI IPUIN LABURREN X
UNIBERTSITATE-LEHIAKETA

EPEA: MAIATZAREN 22A
INFORMAZIOA: EHUko ARABAKO
KANPUSEKO ERREKTOREORDETZA,
KULTUR HEDAKUNTZARAKO
ZERBITZUA



iRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
TABERNA
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ



Gure herriak bere borondate,
izaera eta balioen arabera izan
eta bizitzeko eskubidea du.



FELIX UGARTE

X. ITZULPEN LEHIAKETA

ITZULPEN LEHIAKETA HAU EHUko FILOLOGIA,
GEOGRAFIA ETA
HISTORIA-FAKULTATEKO IRAKASLE
IZAN ZEN FELIX UGARTEREN OMENEZ ANTOLATZEN
DA.

EPEA: MAIATZAREN 22A

INFORMAZIOA: EHUko ARABAKO

KANPUSEKO ERREKTOREORDETZA, KULTUR

HEDAKUNTZARAKO ZERBITZUA

ADI HIKAATENEOko

APIRILEKO AGENDARI!!!

(GUNE SOZIOPOLITIKOKULTURALA)

PINTO KALEA, 13 (LEHENGU ZULOA
LIBURUDENDA)

EKITALDIAK HILERO: ERREZITALDIAK,
HITZALDIAK, BIDEO EMANALDIAK, MIN-
TEGIAK, MAHAINGURUAK...

**“GEU ALDIZKARIKO
HARPIDEDUNA
IZAN NAHI DUT”**



IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

TELEFONOA:


KONTU KORRONTEA (20 DIJITOAK)
+ TITULARRAREN IZENA

***URTEKO KUOTA: 15 euro**

GEU ALDIZKARIA (G-01125392)
PEDRO ASUA KALEA, 2-3.a-01008-GASTEIZ.

Tfnoa.-Faxa: 945222153

e-posta: geugaste@grn.es



*“Zure oparia puxika baten barruan
prestatzen dizugu”*

**SORPRESA BAT EMAN
PUXIKA-SORTA BATEKIN**

Aiztogile Kalea (Kutxi), 81 - Tfnoa. 945 280 452
e-posta: ladis@jet.es





- **KANPAINAREN NONDIK NORAKOAK:** Halabeditarrak lortzeko kanpainak bi zati izan zituen. Lehenengoa aurrekanpaina izan zen eta bere helburua zen jendea “moskeatzea” eta gasteiztarren arreta bereganatzea. Halabes izena erabili zen bi zentzurekin: Araba osoa hartzen duelako eta Hala Bedi irratia izena barneratzen duelako. Bigarren zatian kanpainaren esanahia jakinarazten zen. Zati honen mezua zen Hala Bedi herritarrek osatzen dutela, guztiok garela halabeditarrak. “Kanpaina freskoa, orijinala, dinamikoa eta desberdina izan da”, deritzo halabeditar batek.

- **666:** Zifra erakargarria erabili nahi zuten, deigarria, kutsu berezia zuena. Arreta deitzea lortu dute. Eskuratu nahi dituzten bazkide kopurua da eta irratiko kideen ustez zifra horrekin etorkizuneko asmoak lor daitezke.

- **EPEAK:** 666 bazkide erdiesteko epea kurtso amaiera bitartean jarri da, ekaina arte, hortaz. Ordurako bazkide kopuru horretara helduko direla uste dute irratikoek, eta martxa onean doazela dioskute.

- **ETA GEHIAGO...:** Bazkide egiten direnek aukera dute irratira deitu eta Hala Bedi hobekien definitzen duen hitza esateko. Gero hitz guztiekin kamiseta berezi eta eskusiboak aterako dituzte, bazkide direnentzat soil-soilik.

- **20. URTEMUGA:** Jada hogeit hamar urte igaro dira Hala Bedi jaio zenetik eta bazkideak egiteko kanpaina estuki lotuta dago urtemugarekin. Ekainean oso ekimen berezia egingo dela iragarri digute Halabedikoek, kanpaina eta urtemuga ospatzeko. Hasi zirenetik orain arte egin lana “oso positiboa” izan dela dioskute, eta besteak beste, 24 orduko programazio finkoa, iraunkorra eta kalitatezkoa lortu dutela azpimarratu dute. “Herritik jaio eta herriak elikatzen duen irratia gara”, diote.



ZORIONAK HALA BEDI!!!

Edurne Begiristain

Hazte
halabediarri
Egin zaitez
www.halabedi.org

ARMENTIA IKASTOLA



APIRILAREN 19an, OSTIRALA

KUKUBILT XO (25 urte) eta OSKORRI


“Ekidazu, Lehoiek ez dakite bibolina jotzen”

**MENDIZORROTZA
POLIKIROLDEGIAN,
arratsaldeko 7etan,**

**GEU-K 20 SARRERA
OPARITZEN DITU**

**ETA ADI MAIATZAREN 9ko
KONTZERTUARI:**

MIKEL URDANGARIN



Principal antzokian

**Araba Euskarazerako espreski egin
duen abestia aurkeztuz**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

LAGUNTZAILEAK

